barkatu, ama

# musika

## agenda

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko. Abisua asteazken eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren.

EDURNE KOCH



JAVIER SUN

### Sahararen aldeko kontzertua

**Bilborock aretoa elkartasunezko kontzertu baten lekuko izango da gaur arratsaldean. Estilo askotako artistak eta taldeak bilduko dira Sahararen aldeko kontzertuan. Han izango dira, besteak beste, Kashbad, Cujo, Javier Sun donostiarra, Akatz reggae taldea, Zigor Gazkez, Anari, Delito eta Tontxu Ipiña. Bildutako diru guztia *Margotu irribarreak Saharan* izeneko kooperazio proiektua bultzatzeko erabiliko da. Sarrerak 1.000 pezetan daude salgai.**

### KONTZERTUAK

*Osteguna 2*

**BILBO**

◆ Saharako umeen aldeko kontzertua. **Kashbad**, **Cujo**, **Javier Sun**, **Akatz**, **Zigor Gazkez**, **Anari**, **Delito**, **Tontxu Ipiña**... 1.000 pezetan. Bilborock aretoan.

◆ **Aitzol Mujika** kantautore bergararra. Kafe Antzokian. 22:30etan.

**GASTEIZ**

◆ **Distrito 14**. Tapioca aretoan. 21:00etan. 700 pezetan.

**IRUÑEA**

◆ **Ritual de lo Habitual**. Terminal tabernan. 21:30etan.

◆ **Bad f-Line**. Donegal tabernan. 21:00etan.

**SORALUZE**

◆ **Raul Ruiz y La Banda**, **Helios Ruiz** eta **Julian Leon**. Gaztelupe tabernan. 22:00etan.

*Ostirala 3*

**AGINAGA**

◆ **Dut**, **Folkcore**, *Zoriontasuna salgai* maketaren aurkezpena, eta **Kashbad**. Plazan. Jaiak.

**AIZOAIN**

◆ **Mendeku**. Artsaia Musik Clubean. 23:30etan.

**BILBO**

◆ **EV**, Bretainiako rock taldea. Bretoieraz abesten du. Kafe Antzokian. 22:00etan. 300 pezetan.

◆ **Anestesia** eta **Betagarri**. Zorrotza auzoko ferialean. 23:30etan. AEK Eguneko kanpainaren barruan.

**DONOSTIA**

◆ **Skunk** eta **Ttak**. Amara Berri auzoan. 23:00etan.

**HERNANI**

◆ **Los Feos** eta Caceresko beste talde bat. Gaztetxean. 20:00etan.

**LEKUNBERRI**

◆ **Javier Sun**. Ainhoa tabernan. 22:00etan.

**LEZO**

◆ **Jaukobarik** eta **Jousilouli**. Ziriku tabernan. 23:00etan.

**MURUETA**

◆ **Anje Duhalde**. Benta Barri tabernan. 23:30etan.

**PRADEJON (ERRIOXA)**

◆ Serie B: **Smutmen**, **Undershackers**, **Goodbye Planet**, **El Niño Gusano**, **Patrullero Mancuso**, **The Headcoatees**, **The Headcoats** eta **Subsonics**. La Imagen aretoan. 21:00etatik aurrera. 3.000 pezetan. Hiru egunetarako abonoa 5.000 pezetan (aurretik) eta 5.800 pezetan (leihatilan).

**ZANGOZA**

◆ **Josetxo Goia-Aribe** eta **Pello Ramirez**. *Bide baterako musika* kontzertu sortaren azken emanaldia. Salvador elizan. 20:00etan.

*Larunbata 4*

**ANIZ**

◆ **Anje Duhalde**. Frontoian. 01:00etan.

**BAIONA**

◆ **Txakun**, **EV** eta **N'Tama**. Lauga aretoan. 21:00etan. 40 liberan.

**BILBO**

◆ **MPD** eta **Sindrome del Descontrol**. Deustuako Gazte Lokalean. 20:00etan. 300 pezetan.

**DONEZTEBE**

◆ **Nahi Ta Nahiez**. Bordatxo dantzalekuan.

**EIBAR**

◆ **Raul Ruiz y La Banda**. Karrika tabernan. 22:30etan.

**ELGOIBAR**

◆ **Dantzut**. Gaztetxean. 22:00etan. Dohainik. Elgoibarko Gaztetxe berria martxan jarri da, eta kontzertuak antolatzeko asmoa du. Jotzeko interesatuta bazaude, deitu ezazu telefono hauetara: 741357 (Jon) edo 741926 (Asier).

**ELIZONDO**

◆ **Bad f-Line**. Diskoaren aurkezpena. Casinon.

**ERRENTERIA**

◆ **Beltzez**, disko berriaren aurkezpena, eta **Haurtzarrak**. Gaztetxean.

**GARES**

◆ **Gamma Ray**, **Jag Panzer** eta **Hammerfall**. Gares aretoan. 22:00etan.

**IZARRA**

◆ **Skunk** eta **Joxe Ripiau**. Plazan. 23:00etan.

**MUNGIA**

◆ **Grim Ripper**, **EH Sukarra** eta **Etsaiak**. Eskoletako frontoian. 22:30etan. 500 pezetan. Ibilaldiaren aldeko kontzertua.

**PRADEJON (ERRIOXA)**

◆ Serie B. **Solex**, **Giller Momonje y La Luli**, **King Trash Fandango**, **Jugos Lixiviados**, **Atom Rhumba** eta **Ulan Bator Trio**. 17:00etatik aurrera. Dohainik. 21:00etatik aurrera, **Pussycats**, **Soviet Love**, **Corn Flakes**, **Manta Ray**, **The Mashed Potatoes**, **Gallon Drunk** eta **Guided By Voices**. La Imagen aretoan. 21:00etatik aurrera. 3.500 pezetan.

**ZUMAIA**

◆ **Hot Dogs**. Ilargi tabernan. 24:00etan.

*Igandea 5*

**PASAIA-LEZO**

◆ Kilometroak: **Nahi Ta Nahiez**, **Xuia**, **Exkixu**, **Joxe Ripiau**, **Balerdi Balerdi**, **Urtz**, **Alaitz eta Maider**, **Latzen**, **Drindots**, **Trabuko** eta **Egan**.

**PRADEJON (ERRIOXA)**

◆ Serie B: **Tedium**, **Siti**, **Aidan Bartley** eta amaitzeko, **El Niño Gusano**-k emanaldi berezia eskainiko du. La Imagen aretoan. 16:30etatik aurrera. 1.000 pezetan.

*Asteartea 7*

**BURLATA**

◆ **C.V.** Black Rose tabernan. 20:30etan.

### DATOZENAK

■ **Stereolab**: Erresuma Batuko taldeak *Dots and loops* disko berria aurkeztuko du hilaren 10ean Bilboko Kafe Antzokian. Sarrera 2.000 pezetan dago salgai.

■ **Megadeth**: *heavy* talde beteranoa Donostiako Anoeta kiroldegian izango da hilaren 12an.

■ **Ben Harper:** abeslari estatu batuarra Bordelera hurbilduko da hilaren 14an, *The will to live* biraren barruan.

■ **Palace**: Will Oldham izeneko *country-folk* abeslariak Donostiako Jareño kultur etxean joko du hilaren 17an, eta hurrengo egunean Berangoko El Purgatorio aretoan.

■ **Jarabe de Palo**: *La flaca* abestiaren egileek Hernanin, Bilbon eta Iruñean joko dute hilaren 17an, 18an eta 19an, hurrenez hurren.

■ **Toy Dollz**: Bergarako Jam aretoan izango da hilaren 17an, eta hurrengo egunean Garesen.

■ **Radiohead**: aspaldiko partez, Erresuma Batuko puntako pop talde batek bisitatuko gaitu. Hilaren 26an izango da Anoetako kiroldegian.




### Beltzez disko berriarekin

Beltzez taldeak kalean du disko berria, *Bazterretan zer dago?*(R-Dizka), eta asteburu honetan Oreretako gaztetxean aurkeztuko du zuzenean. Donibane-Lohizuneko boskoteak Lorentzo Records estudioetan (Berriz) grabatu du bere bigarren disko luzea, eta Josu Monge soinu teknikariaren laguntza izan du. Hemeretzi abesti sartu ditu, *hardcore* eta metal ildoen artean, eta haietako bat Kapten Egurrak taldearen *Dantzari beltzak* kantuaren bertsioa da. Ondoko asteetan Gasteizen, Iruñean eta Parisen aurkeztuko dute diskoa.



### Gamma Ray Garesen

Gamma Ray Alemaniako metal taldeak *Somewhere out in from space* disko berria aurkeztuko du etzi Gares aretoan (Gares-Nafarroa). Kay Hansen (ahotsa), Henjo Richter (gitarra eta teklatuak), Dirk Schlachter (baxua) eta Dan Zimmermann (bateria) dira Gamma Rayko egungo taldekideak. Gonbidatu gisa, Estatu Batuetako Jag Panzer eta Hammerfall izango dira. Jag Panzer talde beteranoak aurten kaleraturiko diskoa, *Fourth Judgement*, aurkeztuko du.



### Kilometroak Pasaia-Lezon.

Pasaian eta Lezon izango da aurten Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen aldeko jaia. Egun osoko ekitaldi ugarien artean, musika eskaintza nabarmentzen da, denok asetzeko modukoa: pop-rock jarraitzaileak (Balerdi Balerdi), heavy-ak (Urtz, Latzen), dantza egitea gustuko dutenak (Joxe Ripiau, Alaitz eta Maider, Xuia Reggae Band), rockeroak (Nahi Ta Nahiez, Exkixu), eta berbena zaletuak (Drindots, Trabuko, Egan).